



Jolasleku berria,
errealitate bihurtuta


Haurtzaro Ikastola
bizitzarako hezkuntza

82

TRINPART

ALDIZKARIA / 2025eko urtarrila / www.haurtzaroikastola.eus

AURKIBIDEA

Agurra	_03
Gai Nagusia	_04
Berrikuntzak	_08
Langileak	_12
Senideak	_14
Urmendi	_16
Hatzak Bete Lan	_18
Argazki-albuma: San Nikolas, San Tomas eta Gabon Kantari	_38
Taldea	_40
Laburrak	_44
Eskolaz Kanpokoak	_48
Oiartzo	_50

TXINPART

Hurtzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
T.: 943 49 16 59
hurtzaro@ikastola.eus
LG: SS-129 / 2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
DIXIDU Diseinu Grafikoa



Kaixo, guztioi!

Iritsi da **Txinpart!** aldizkariaren 82. zenbakia! Noiz iritsiko zain zeundetela badakigu, batzuek eta besteek egindako lanak irakurtzeko eta ikusteko gogoz zinetela. Oraingoan ere, zenbaki emankorra eta osoa atera zaigu, sentimenduz betetakoa. Ea, bada, gustuko duzuen.

Irailean, ikastolako atea irekitzearekin batera, txikiaren negar-, algara-, irri- eta **poz**-doinuak nagusi izan ohi dira; haiekin batera, udan ikusi gabeko lagunen arteko besarkadak eta lotsak, edota tutore nahiz taldekide berriengatik **beldurrak**. Baina aurtengo irailean, bazen guztiongan bestelako sentimendurik ere: amesturiko jolaslekua errealitate bihurtuta probatzeko **irrika**. Luzea egin zitzaigun iraila, goxokia eskura jarri eta ezin dastaturik; jolastoki erakargarria begi bistan, eta ezin sarturik. Ez zen urria nahi orduko iritsi.

Eremu zoragarria daukagu, guztiontzat irekita dagoena, mugarik gabekoa, jolasteko eta ikasteko aukera paregabeak eskaintzen dituena. Eta, ikasketen artean, zuekin partekatu eta erronka bihurtu nahi genukeena: ametsa ez dadin zapuztu, baietz arduraz jokatu eta txukun zaindu!

Gainera, zenbaki honetan kulturartekotasunaz hausnarketa txikia egin nahi izan dugu. Testuinguru horretan, gogoratu nahi ditugu Gazatik etorri zitzaizkigun Menatallah, Abdullah, Ashraf, Rahaf, Zena eta Abderrahman. Gure ikastolako atea parez pare ireki genizkien eta abegikor gurean hartu. Denbora gutxi eman zuten gurekin, baina nahikoa **maitasuna** sentitzeko eta haien errealitate gordinenaz pixka bat gehiago ikasteko.

Irrikarekin, pozarekin, beldurrekin eta maitasunarekin batera, Maritxuren agurrak eragindako **tristura** ere sentitzen hasi gara. Dakizuen bezala, Maritxuk ibilbide luzea egin du ikastolako jantokian eta abenduan agur esan zigun. Horregatik, **Txinpart!** zenbaki honetan, egindako lanarengatik eta bere konpromisoagatik eskerrak ematearekin batera, jantokiaren eboluzioa zein izan den ezagutzeko parada izango duzue, baita ardura berria nork hartuko duen jakiteko ere.

Uste dut behar baino gehiago kontaktzen ari natzaizuela. DBHko nerabeek **spoiler**ra egiten ari naizela esango didate! Zuen esku uzten dut, beraz, aldizkaria konpainian edo nork bere bakardadean irakurtzeko eta gozatzeko aukera. Ekin lanari!

TALDE PEDAGOGIKOA, IBILIAN DOAN TROPELA

Ikasturte oso bat pasatu da Haurtzaro Ikastolan Talde Pedagogikoa abiatu genuenetik, eta bigarrenean murgilduta gaude. Hilabete hauetan guztietan aukera bikaina izan dugu gai pedagogikoez mintzatzeko eta gogoeta egiteko, taldean bertan zein ikastolako klaustroarekin batera egindako saioetan. Galdera batekin abiatu ginen: **Zer nolako ikasleak nahi ditugu oinarritzko hezkuntzaren amaieran?** Gaiaren sakontasuna kontuan hartuta, taldeari jarritako helburuak ez ziren nolanhikoak izan, ikaslearen irteera-profila pertsonaren dimentsioaren begirada osoarekin osatzea ez baita makala. Are gehiago, Haurtzaro Ikastolaren Plan Estrategiko berriaren zehaztapenean pertsona ereduaren ildo estrategikoez hitz egiten ari bagara. Gaiak ertz asko ditu, baina hilabete hauetan egindako lanari esker, ertzak leuntzen doaz urratsez urrats.

Ibilaldi horretan aukera izan dugu ikastolaren ikuspegiaren baitako pertsona ereduaren bereizgarriak eta ezaugarriak zehazteko, eta haiei esanahia emateko. Gaur-gaurkoz



Talde Pedagogikoa ibilian doan tropeला dugu. Bizikleta hartuta abiatu ginen, jakinik ibilbidea luzea izango zela.

Haurtzaro Ikastolaren pertsona ereduaren oinarriko adreiluak finkatuta ditugu. Horretarako, Ikastolen Elkartearen Bazatuz? **Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra** argitalpenean definitutako bost bereizgarriak hartu ditugu abiapuntutzat, eta horiek hamabost ezaugarriekin hornitu ditugu, hiru bereizgarri bakoitzeko. Arakatzelanean murgilduta ibili gara denbora luzez, lehendik ikastolan sustraitutako ideiak garai berri hauen eskakizunetara doitzen. Irakasle klastroak emandako sostenguari esker, taldea sendo aritu da lanean, eta etorkizunerako lan-ildoak zehaztuta ditu dagoeneko. Finean, **Zer nahi dugu?** galderari erantzuna ematen aritu gara denbora luzez, eta lortu dugu. Orain, ordea, beste galdera bat dugu jirabiraka: **Nola egingo dugu?** Hau da, zer metodologia eta estrategia baliatuko ditugu ikasleak jomuga horretara irits daitezen? Zein izango dira gure bidaia gidatuko duten ildo pedagogikoak? Nola jakingo dugu pertsona ereduaren garapenean urrats zuzenak egiten ari garela eta gure ikasleak pertsonaren ikuspegi integraletik hezten ari garela? Azken hilabeteotan lan horretan dihardugu, eta gure helburua da ikasturte amaierarako gai hori ere

mamituta izatea, berriz ere, irakasle-klastroa bidelagun izanik.

Pertsona ereduaren lanketaren lema Talde Pedagogikoak hartu badu ere, taldeak badu beste helburu bat gehiago: hain zuzen ere, egindako lana Haurtzaro Ikastolaren komunitate osoari jakinaraztea. Azken batean, gure haurren, gaztetxoaren eta gazteen hezkuntzan denok baitugu gure lekua eta egitekoa.

Talde Pedagogikoa ibilian doan tropela dugu. Bizikleta hartuta abiatu ginen, jakinik ibilbidea luzea izango zela. Abian ibili gara, batzuetan abiadura bizi samarrean esprintean, maldan gora motel besteetan, bideak eman dizkigun aukeren eta zailtasunen baitan. Ibilaldi gogoetsua egiten ari gara, une oro hankak lurrean ipiniz, geldiuneak eginez eta momentuko paisaiak gozatuz. Lan zoragarri eta erakargarri batekin abiatu ginen eta ibilbidean jasotako ufadak aurrera egiteko kemena eman digu. Aurrerantzean ere jarraituko dugu ikastolaren iparrorratza izango den horren zehaztapenean lanean, ertzak elkarrekin leunduz.



“Aurrerantzean ere jarraituko dugu ikastolaren iparrorratza izango den horren zehaztapenean lanean, ertzak elkarrekin leunduz.”

02. BERRIKUNTZAK



AMESTURIKO JOLASLEKUA, ERREALITATE BIHURTUTA

Eraldaketak jolasteko modu berriak ekarri ditu. Esperimentaziorako, imitaziorako, interakziorako, bizitzeko, egoteko eta aritzeko molde berriak. Argi dago gelan egiten diren balioen lanketa eta eskararen lanketa sustatu behar direla espaziorik espazio, barrualdean nahiz kanpoaldean.

Prozesu parte hartzaileak eta egindako inbertsio ekonomikoa handiak izan dira, horregatik, zaila egiten zaigu inork egindako ahalegina hain arin zapuztu nahi izatea. Halaber, ez dezagun soilik mehatxuen irakurketarik egin (txikizioak, zikinkeria, istripuak), aritu gaitezen nagusiki eskaintzen dituen aukerez eta eremuaren balio pedagogikoaz didaktika egin.

Egindako lanek asfaltoa eta hormigoia aldatzea ekarri dute nagusiki, ikastola-zuhaitz, -lorategi edo etorriko diren -baratzeekin. Argi dago ikastetxeko patioak birnaturalizatzeko eragina duela haurren osasun mentalean eta fisikoan. Helburu hori izanik, "basa-patioa", "eko-patioa", hots, patio jasagarria

egitea zen helburuen artean genuenetako bat. Espazioak ohitura osasungarriekin lotura egitea dakar, eta, hein handi batean, 2030 Agendaren hainbat helburu praktikatzeko aitzakia da: 0 zabor, 0 plastiko.

Alde batetik, eskolako **jolastokiak «berdeago»** egiteak aukera emango digu jolaslekuak udaberri-udan hartzen zuen tenperatura hobetzeko. Azken urteetako bero boladek erakutsi dute babesleku termikoak sortu behar direla graduak jaisten laguntzeko eta herritarrei arnasa emateko. Umeek ikastolan ordu asko ematen dituzte egunean, eta funtsezkoa da ikastetxean bertan berdeguneetara sartu ahal izatea. Beraz, klima-aldaketaren erronkari aurre egitea bilatu nahi izan dugu jolas eremuaren eraldaketarekin ere.

Era berean, eraldaketa horrek beste maila batzuetan ere funtzionatuko duela espero dugu, ikasleen osasun mentalean eta fisikoan eragin positiboa baitu. Espazio berriak jarduera fisikoa sustatzeaz



02. BERRIKUNTZAK



gain, naturarekin harremantzeko modu berriak eskaintzen ditu. Beraz, patioa birnaturalizatzea, ikastolako patioa lorategi bihurtu nahi izan dugu, besteak beste, parke. Ehundura aukera anitzak eskuratu ditugu **esperimentatzeko**; aterpeak eta babeslekuak jarri dira itzaletan **egoteko eta aritzeko, hitz egiteko**, harremantzeko, jolasteko, amets egiteko; ibilbide aukera desberdinak marraztu dira aukera berriak probatzeko, **imitatzeko, harremantzeko...** leku aberatsetan aberatsa den espazio batean.

Patioa naturalizatzeak ingurumen-irizpideak kontuan hartzea dakar, baita ikasleen konpetentzia zientifikoa lantzea ere. Izan ere, landareria, gune bioanitzak eta uraren zikloak lantzeko balio du. Hezkuntza-komunitate osoak parte hartuz sortutako diseinuak, berdeguneak, materia erabilera

anitzak, uraren erabilera eta aprobetxamendua eta osasunarekin lotutako ohitura osasuntsuak praktikatzeko aukera paregabeak eskaintzen dizkigu.

Gainera, hesirik gabeko patioaren kontzeptua lantzea indargunea delakoan gaude, herri onurako ikastola baita gurea, herritik sortua eta herritarrentzat. Beraz, Oiartzungo herriarentzat arnagune berde berria da, asfatorik eta hormigoirik gabeko eremu irekia.

Haurtzaro ikastolako patioaren eraldaketak halaber, bestelako erronkarik ere izan du: genero-estereotipoak gainditzea eta ikasle guztiek, sexu bereizketarik egin gabe, edozein premia dutela ere, eskubide berdintasunean hezteko aukera izatea,

espazio inklusiboagoak sortuz. Arestian aipatu moduan, jolastokiak beste pieza bat gehiago dira gure hezkuntza proiektuaren garapenerako.

Gauzak horrela, **Berdintasunerako jolastokia** da gurea. Hori lortzeko, sexu askotariko umeen arteko elkarrekintza-mota aldatu behar da, joko arautua maite ez dutenek haien gustukoak diren jarduerak egiteko aukerak bultzatuz. Espazioaren erabilera baldintzatzen duten hierarkiak apurtu behar dira eta guztiek erabili ahal izateko nortasunaz jantzi. Kirol estandarrek nagusitasuna eta lehia bultzatzen dute, eta horrek, hainbatetan, indarra tarteko, bazterkeria dakar. Espazioen dibertsifikazioak guztientzako eskaintza bermatzea ekarriko duelakoan gaude, erabiltzaileak anitzak baitira. Baina hau noski ez da espazioaren aldaketarekin automatizatzen den prozesua, helduok aktiboki parte hartzearen eta heziketaren ondorioa da.

Diseinua aldatzeak, genero ikuspegitik

neutraltasunerako aukera eskainiko du, baita interesen araberrako antolaketari buruzko araudiak ezartzeko eta kooperazioan jarduteko, lankidetzan eta ez lehiakortasunean. Mundu guztiak irabazi du, baita kirol estandarretan/arautuetan jokatzen dutenek ere, eremu naturalak jarduera-aukera handiagoa eta errealagoa dakarkielako, gizartearen aniztasuna bera ulertzen lagunduz.

Elkartzeko modu berriak eskaini ditu eraldaketak; izan ere, orain arte adinaren arabera araututako espazio antolatua izatetik, adinkide ez diren kideen arteko jolasteko era berriak sustatzeko ahaleginean jarri gara, botere nagusitasun harremanak lantzeko abagunea izanik.

Azkenik, eremuaren zaintzak beste ikaskizun bat dakargu: nitasunetik kolektiboan pentsatzera salto egitea, erantzukizunez eta arduraz jokatzea norberarentzat, baina baita guztiongatik ere.



Mila esker Maritxu!

Egileak: June Huerta, Hodei Gomez, Malek Belhadri eta Andrea Gomez

Maritxu Loperena, urte askotan zehar Haurtzaro Ikastolako jantokiaren arduraduna izan da. Abenduan erretiratu zen, eta eskerrak emateko elkarrizketa egin diogu.

Maritxu, zein dira zure izen-abizenak eta adina?
Maritxu Loperena Etxarte, eta 64 urte ditut.

Zenbat urterekin hasi zinen Haurtzaro Ikastolako jantokian lanean?
17 urterekin hasi nintzen ikastolan.

Zenbat urte egin dituzu bertan lanean?
47 bete nituen irailean.

Asko aldatu da ikastolako jantokia eta jantoki zerbitzua zu hasiz geroztik?
Bai, pila bat aldatu da! Eta hobera joan da.

Jantoki zerbitzua beti eskaini da gaur egungo jantokian?
Ez, begira, hasi ginen Elizalde ikastetxean. Bakarrik lau ikasleek jaten zuten eskolan eta gure irakasleekin joaten ziren hara. Baina, hasi nintzen beraiekin, eta, orduan, bukatzen zutenean bazkaria, ni gelditzen nintzen beraiekin jolastokian haiek zaintzen, irakasleek libre hartzeko. Gero pasatu ginen Madalensorora. Nekanerekin eta Arantxarekin. Eta gero, urte batzuren ondoren, etorri ginen eraikuntza honetara. Eta poz-pozik egon naiz hemen orain arte.

Gogoratzen al duzu ikastolan bizitutako momentu gogorren bat? Kontatuko diguzu?
Ba beno, niretzat gogorrenak... izan dira haur batek mina hartu duenean eta puntuak eman dizkiotenean, edo ospitalera eraman behar izan dutenean. Gogorrak bakarrik momentu horiek izan dira, haurrak minez eta gaizki ikustea.

Eta ederretan ederrena? Kontatuko diguzu?
Ederrak egunero gertatzen dira, haurrekin egotea eta ondo ikustea, gurekin ere ongi pasatzen dutela jakitea. Horiek izan dira momentu ederrenak.

Zer egingo duzu urtarrietik aurrera?
Lehenagoan egin zidaten galdera berbera. Bi gauza garrantzitsu egitera noa; baina lehengo, niretzat denbora hartuko dut. Aprobetxatu nahi dut nire gurasoekin egoteko. Nire aitak 90 urte ditu eta nire amak 83. Eta, gero, amona izan berri naiz. Orduan, nire alabarekin eta umearekin egongo naiz. Ilusio handia dut amona izateko, mutila da, eta pixka bat ere egon beharko dut berarekin. Horiek dira nire planak.



Nor izango da zure ordez arduradun?
Ba... Izar Lekuona izango da. Ezagutzen duzue! "Maja- maja" da eta berarekin primeran egongo zarete.

Zein aholku emango zenioke zure ordezkoari?
Ez diot aholkurik eman beharrik, badakit berak oso ondo egingo duela, eta bera oso ondo maneiatuko dela; primeran moldatuko da zuekin, sukaldekoekin, denekin... Horregatik, ez du aholkurik behar.

Zenbat langile zineten hasieran jantokian? Gaur egun zenbat zarete?
Hasieran bi hasi ginen, gaur egun, 22 gara.

Zenbat menu probatu dituzu urte hauetan guztietan? Zein duzu gustukoena?
Ez dakit zenbat probatu ditudan eta denak gustukoak ditut, baina bereziki txitxirioak ditut gustukoena.

Mila esker denagatik, Maritxu, zure arduragatik, gu hain ongi zaintzeagatik, zure arretagatik eta zure pazientziagatik gurekin!

ZORTE ON!



KULTURARTEKOTASUNA IKASTOLAN

25 herrialde ezberdinetako bazkideak ditugu ikastolan, familia eredu askotarikoetan antolatuta. Horien artean, hurbilago dagoen Espainiatik edo Kataluniatik etorritakoak, edota beste kontinenteetatik iritsitakoak. Herrialde horietako guztietako jatorrien errolda egin dugu, eta azken joerak aztertuta, kulturartekotasunari begira jarri beharrean gaudela argi dugu.

Baina zer da kulturartekotasunari begiratzea? Euskararentzat Oiartzunen arnagunea den ikastolan euskarari eutsi nahi diogu, eta, era berean, euskaraz ez dakiten familiek ikastolan parte hartzea nahi dugu. **Parte hartzeko garaian euskaraz oztupoa edo korapiloa izatea ez dugu nahi. Nola uzta daitezke biak?**

Beste jatorri bateko familiak gurean hain anitzak ez zirenean, 2002an, ekin genion Hizkuntza Proiektua idazteari. Ez zen hainbesteko herri aniztasunik, baina nagusiki erdaraz mintzo ziren hainbat familia genituen orduan ere gurean. Gauzak horrela, Hautzaro Ikastolako hizkuntza politika idazteari ekin genion, euskaraz gal ez zezan eta guztion eskubideak bermatzeko helburuarekin. Testuinguru horretan hasi ginen euskaraz hutsez bilerak egiten, familia guztien integrazioa helburu, komunikazioa bermatzeko estrategiak garatzen. Ordukoak dira

guraso bilera txosten idatziak astebete lehenagotik bidaltzeko ohiturak, edota gurasoei diapositibak elebidun inprimatuta ematekoak. Geroztikokoak ikastolako hainbat bilera orokorretan xuxurlariak aurrez izendatzea eta berehalako itzulpen zerbitzua eskaintzeko estrategia. Hainbat egoera komunikatibori erantzuteko prestatuta ditugu tresnak edo formatuak.

Ekintza horiekin guztiekin, kulturartekotasunari begiratzeak hiru helburu betetzea dakar: **guztiak euskaraz bizitzea** (oraindik erronka da); **familia guztiekin komunikazio eta giro abegikorra bermatzea**, baita euskaraz ez dakitenekin ere; eta **euskararen eremutik eta euskalduntasunetik kulturarteko harremanak sustatzea**; beste jatorrietako jendearen parte-hartzea ere sustatzea.

Orain, Oiartzungo Udalak herriarentzat erronka nagusitatzat izendatu du *kulturartekotasun* proiektua. Herri osoari eskaintza egiten dio eta orain arte egin dugun ibilbidea oinarri, egitasmoarekin lanean jarraituko dugu, familia guztien beharretara egokituz eta guztien iritzia kontuan hartuz.

Iritzien artean Cinthyak eta Fatimak ikastolari buruz eman digutena...



“Entzunak sentitzen gara, badugu iritzia eta zer esana”

Cintha Ekuadorretik Euskal Herrira duela 20 urte iritsi zen bere gurasoekin, eta **Oiartzuna** duela urtebete etorri da osatu duen familiarekin. **Fatima**, berriz, Algeriatik **Oiartzuna** iritsi zen duela bi urte eta erdi, senarrarekin eta hiru seme-alabekin.

Ikastolak antolatzen dituen ekintzetan parte hartu ohi duzue?

Cintha: bileretara etortzen naiz, orokorretara eta bakarkakoetara. Euskara pixka bat ulertzen dut eta euskarri idatziarekin edo xuxurlariaren laguntzarekin bilera jarraitzen ahalegintzen naiz. Baina urtebetetze-festa eta gainerakoetan zaila egiten zaigu, poliki-poliki ari gara. Euskara ez hitz egitea traba da gurasoekin sozializatzeko.

Fatima: oro har bai, etortzen naiz bileretara, baina ezin dut beti, ikasten ari naiz eta klasea izaten dut batzuetan arratsalde. Xuxurlariaren laguntza ezinbestekoa da nire kasuan, behin eta berriz errepikatzea. Horregatik, bakarkako bilera da emankorragoa.

Zergatik aukeratu zenuten ikastola?

Cintha: giro lasaia dagoelako, osasuntsua nerabeentzat. Lagunartea erraz egiten dute eta ohitura aldetik ez dute hiriburuko bizimodurik eramaten, bizikletan joateko geratzen dira, futboleko aritzera. Ziurtasuna sentitzen dugu, jarraipena eta ardura handia dagoela. Gainera,

benetan euskaraz bizitzera iristen dira. Lehen beste ikastetxe batean egon ziren gure seme-alabak, Oiartzundik kanpo, baina egondako urte guztietan ez ziren euskaraz aritzera iritsi, ez zuten euskaraz ia batere ikasi. Lan egiteko moduari dagokionez, hemen pentsarazten zaie. Adibidez, matematika bizitzarako aplikagarria egitea eta eguneroko bizitzarako beharrezko egiteak bihurtzen du ikasketa motibagarria. Eta hor ikusten dugu sormena bultzatzen dela %100.

Fatima: erabat ados. Lasaitasun eta konfiantza handia dago, hurbiltasuna, abegikortasuna. Ikastolak antolaketa handia du, dena bikain antolatuta dago, ez dago arazorik, dena hitz egin liteke, jantokiko eremua ere ziurra da. Erreferentziak argiak dira. Zoriontsu gaude hemen. Une honetan ere entzunak sentitzen gara, badugu iritzia eta zer esana, entzun egiten zaigu. Lantzen den curriculum ere oso irekia da, herria ezagutzeko aukera handiak daude, aire libreko ikasketa sustatzen da, ekintza osagarri asko egiten dituzte ikasi beharrekoea esanguratsua izateko. Gainera, gurasoei parte hartzeko gonbidapena egiten zaigu.

HAURRAREN GARAPENA, HARREMANAK, OBJEKTUAK, JOLASA...

Urmendin hiru urte bitarteko umeak izaten ditugu, eta horietatik batzuk hilabete gutxiarekin jasotzen ditugu. Zenbat eta txikiago, hezitzailearekiko dependentzia handiagoa dute, eta hori horrela, gosea, logura, hotza, beldurra... eta beste hainbat oinarritzko behar asetzeko gure premia handia dute. Beraz, gure esku dago umeak esaten duena entzutea, interpretatzea eta ahal den modu egokienean erantzutea.

Hasiera-hasieratik, beraz, harremanak eraikitzen hasten gara. Gainera, badakigu giza-harremana garapen psikologikorako ezinbesteko baldintza dela, baita garuna aberasteko modurik eraginkorrena ere. Ildo beretik, haurren beharrak ase ahal izateko gure harremanak oso gertukoa behar du izan: begirada, ahotsa, usaimena, ukimena, gorputza... daude tartean. Eta jakin badakigu harreman hori ahalik eta aberatsena eta eraginkorrena izatea komeni dela. Era berean, badakigu baita ere, harremana gertutasunetik abiatu arren, beharrezkoa dela gure artean distantzia jartzea. Alegia, ez dela komeni une oro magalean egotea, haurrak bizi behar dituelako "bakarrik" egoteko momentuak. "Bakarrik" hori ulertuz noski, gure begirada eta presentzia hor egongo dela, hein handi batean.



Aipatu une horietan objektua azaltzen da. Objektua da haurraren eta helduaren artean distantzia jarriko duen elementua. Kontuan hartu lehenengo urte horietan zentzumeneren bidezko informazioa jasoko duela haurrak: objektuak txupatu, kolpatu, astindu, jaurti... egingo ditu. Ekintza horiek eginez, hainbat informazio bilduko du: objektua hotza dela, edo gogorra, latza edo leuna... eta horrela, poliki-poliki, berarengandik kanpo dagoen errealitatearen irudia eraikitzen hasiko da.

Gainera, lehenengo objektu horiek lagunduko diote haur txikiari **amaren* gorputzaren gertutasunean bizitutako uneak modu sinbolikoan ordezkatzeko, eta bere burua denbora batez lasaitzeko modua aurkituko du.

Horixe izango da jolasaren hastapena. Bere nortasuna eraikitzeko garaian berebiziko garrantzia izango duen jolasaren hastapena, hain zuzen.

**Amaren* aipamena egiten denean, amatasun funtzioa betetzen duen pertsonari egiten zaio erreferentzia, beste modu batera esanda, atxikimenduzko figurari.

HH

ZIRKULAZIO AUTONOMOA

Haur Hezkuntzan, eguneroko jardunean, zirkulazio autonomoak indar handia hartzen du. Zirkulazio autonomoan, haurrak aurrez diseinatutako testuinguru seguru, argi, esanguratsu eta aberats baten baitan, modu librean gune batetik bestera mugitzeko aukera izango du.

Gainera, haurrari aukera emango dio, gune bakoitzean dauden material edo gonbitetan oinarrituz, ingurukoekin elkarreraginean, jolas autonomo eta espontaneoak garatzeko.

Metodologia honen helburua, haurrak, oinarrituzko behar psikologikoak (autonomoa, kompetentzia eta taldeko partaide sentitzea) aseak dituela sentitzea da.

Hori guztia ahalbidetzeko, ezinbestekoa da heldu erreferenteen bidelaguntza jasotzea: interesa adieraziz, motibatuz, komunikatzeko gogoia piztuz, haurrak egiten duenari zentzua emanez eta ispilu funtzioa eginez, betiere, haurra epaitu gabe.

HH3



Kanpo espazioan trebetasunak garatzen.



Elkarrekin erronkak gainditzen.



Elkar imitatuz biribilak egiten.



Haurra proiektu propioa eraikitzen.

Haurrak elkarrekin kirkildutako artaleekin esperimentatzen.

06. HATZAK BETE LAN

HH4

Mahai-jolasen onurak: arauak errespetatzen ikasteko, kooperazioa lantzeko, adi egoteko gaitasuna sustatzeko...



Gorputza mugimenduan, gorputza harremanetan, erronka ederra gure txikientzat.



Adierazpen plastikoaren bidez simetria lantzen.



Jolasa partekatuz, irudimena askatu eta sormenari bide eman.

HH5



Sortutako segidak irudikatzen.





Haurrak fruta broxetak sortuz, segidak lantzen.



Herriko Gau Beltzerako kalabazari tripak husten.

LH1

GURE MUSEOA



Etaia eta ikasturte berriari hasiera emateko, Arte Hezkuntza irakasgaien ideia bikaina izan genuen: gure museoa sortzea. Museo ezberdinak ezagutu ondoren, gure arte lanak sortzen hasi ginen: norberak bere erretratua marraztu eta marko bereziak diseinatu, koadro itxura emateko;



hizkien eta alfabetoaren lanketarako, hizki bakoitza erabili forma ezberdinak sortzeko...



Prozesuan zehar **Herve Tullet** artista izan dugu bidelagun eta museoa kolorez betetzen lagundu digu.



Horregatik, **KOLORETAKO MUSEOA** deitu diogu gure Arte Hezkuntzako museoari.



Gonbidatuta zaudete museoa bisitatzera!



06. HATZAK BETE LAN

LH2

LIBURUA LIBURUA GURE LIBURUTEGIETAN

Ba ote dago libururik irakurlerik gabe? Eta irakurlerik libururik gabe? Horri buruz pentsarazi zigun Pello Añorgak urriaren 16an berarekin izan genuen saioan. "Egun on guztio!", "egun on liburutegia", "egun on liburuak" esanez agurtu gintuen. Ze plazera bera entzutea! Zeinen gustura aritu ginen berak idatzitako liburua nola kontatzen zigan entzuten! Baita bere galderekin pentsatzen ere!

Pellok kontatu zigun bere ustez liburuak bi hego dituztela. Hego horiek itxita egon daitezke edo irekita. Itxiak daudenean, liburuaren hitzak preso daudela dio berak: etxeke apaletan, liburutegiko apaletan... horrela egoten dira. Aldiz, liburu bat irekitzen dugunean bere hegoak irekitzen dira, hegan egiten du; eta liburuarekin batera guk ere bai, irakurleok bidaiatu egiten dugu. Nora? Leku ezagunetara batzuetan, besteetan ezegunetara, leku lasaietara...

Txundituta entzun genuen kontakizuna, eta ohartu ginen horrela gertatzen zaigula guri ere. Guk bidaiatu nahi badugu liburuak behar ditugu eta liburuak gu behar gaitu, irakurleak behar ditu bidaiatzeko. Halako batean galdetu zigun **Liburuak**: "Nork izan nahi du nire lagun kuttuna?" Garbi genuen: **Liburuak** liburuaren lagun kuttuna izan nahi dugu!



Pellorekin batera Xabi Salaberria ere gure artean izan zen; **Liburuak** liburuaren argitaletxeko kidea da. Berak kontatu zigun elkarrekin egin duten proiektu honetan gu, irakurleak, protagonista izatea nahi dutela eta horretarako kanta bat sortuko dutela. Kanta horren bideoa egiteko gutako bakoitzari marrazki bat egiteko eskatu zigun. Guk marrazkiak egin ditugu eta orain kanta sortzen ariko dira.

Saioa bukatzeko sorpresa galanta eman ziguten biok: bakoitzarentzat **Liburuak** liburuaren ale bat opari, idazlearen sinadurarekin! Ze poza! Ez genuen espero! Orain bakoitzak gure etxeke liburutegian daukagu, **Liburuak** liburuaz etxekeekin gozatzeko. Elkarrekin hegan egiteko.

Eskerrik asko Pello eta Xabi ikaskizun horrengatik. Abisatu abestia bukatzean!



LH3

EGUZKI SISTEMA ETA LUR PLANETA



Ba al zenekien...

...galaxiak izar multzo erraldoiak direla, milaka eta milaka izar biltzen dituztenak?

...planetek ez dutela berezko argirik, eta izar baten inguruan biraka dabilzala?

...konstelazioak izar multzoak direla? Itxuraz elkarren ondoan daude, eta, marra batez lotuz gero, irudi bat osatzen dute.

...kometak gorputz izoztu txikiak direla? Eguzkitik gertu pasatzean berotu egiten dira eta gasak askatzen hasten dira. Batzuetan isats bat ikusten zaie.

LH3. mailakook aspaldi honetan, zerura begira egon gara. Egunez zerua behatu dugu, baita gauz ere. Zeru deitzen dugun hori UNIBERTSOA da. Oso handia dela ikasi dugu eta milioika elementu daudela bertan, horien artean gure planeta, Lurra. Gure buruaren gainean dagoena ezagutu dugu, baita oinen azpian dagoena ere. Gure planetaren egitura.

Aizu! Ez pentsa, ikasturte honetan ere bertsotan jarraitu dugu. Ander Elortegi Garateak eginiko unibertsoari buruzko bertsoak abestu ditugu unitatean zehar. Dagoeneko buruz dakizkigu!

Espazioa ezagutzea gure txikitako nahia. Jantzi trajea, jarri kaskoa eta bota erregaia. Lau, hiru, bi, bat, zero... heldu da abiatzeko garaia begiak itxiz egin dezagun unibertsoa bidaia.



Entzun:
https://youtu.be/7U40qIA4_BU

06. HATZAK BETE LAN

LH4

AZALERAZ, AINARA LASAREKIN ETA IDOIA BERATARBIDEREKIN

Metrokoadroka Sormen Laborategiak antolatutako 21 aulki kultur ekimenean parte hartzeko aukera izan dugu aurten. Ainara Lasa herriko sortzailearen **Azalera** erakusketa ikustera joan ginen lehenengo, eta bere azalpenak adi-adi eta interesez entzun genituen. Gorputzaz, gorputzen arteko loturez, azalberritzeaz... hausnartzeko parada ezin hobea izan genuen eta benetan gozatu genuen igeltsuz, latexez eta beste hainbat materialez egindako obrei begira.

Ikusitako lanari jarraipena emanez, Ainararen eta Idoiaren eskutik tailer bat ere egin genuen gelan. Gure azalean bizitu ahal izan genuen igeltsuz hatz berriak sortzeko prozesua; azalaren estutasuna eta askatzearen plazera. Aurrerago, tailerrean egindako hatz horiekin guztiekin, obra berri bat sortuko du Ainarak; gorputz kolektibo bat, esanahi berriak hartuko dituen gorputza. Guztiona den obra hori ikusteko irrikan gaude!



LH5

URTAROAK BESTE HERRIALDEETAN

LH5. mailan, aurten ere, lehen hiru hilabete honetan **Bizitza jira-biran** unitatearekin jardun dugu. Bertan, gure bizitzan behin eta berriro errepikatzen diren zikloak aztertu ditugu: ilargiarenak, Lur planetarenak, gure egutegiarenak, eguna eta gauak, urtaroak... eta ikasturte honetan egoera aberasgarri bat bizitzen ari gara. Gure artera etorri berri diren bi ikasleak, Umak eta Juan Davidek, beste herrialdeetan gertatzen dena azaldu baitigute, baita gure ikuspegia zabaldu ere. Bata, Suedian bizitu da azken urteetan eta, bestea, Colombian.

Beraiei esker, Lur planetak egiten duen translazio mugimendua eta, ondorioz, urtaroen zikloa denok inoiz baino hobeto ulertu ditugu, kontakizuna beraien esperientziatik eta bizipenetatik egindakoa izan baita. Honela kontatu ziguten mailakide guztiei:


Zeinen aberasgarria den kulturazintasuna!

"En Colombia sólo hay una sola estación que creo que se llama "tropical", esto es porque vivimos cerca del Ecuador. No cambian mucho las horas en las que sale el sol o en las que cae la noche, ni tampoco hay estaciones como las de acá. Tenemos temporadas secas (de diciembre a enero y de julio a agosto) y temporadas de lluvias y viento (de abril a mayo y de octubre a noviembre). Empieza a amanecer más o menos a las 6 de la mañana, siempre, todo el año, sí todo el año. Y el sol se esconde como a las siete de la noche acá anochece tarde, pero allí todo el rato hacia las 19:00 empieza a anochecer. Me toca madrugar más porque me tenía que levantar a las 05:00, a bañarme, a vestirme y a desayunar porque en el colegio entramos a las siete. Las clases son hasta la una y luego a la tarde llamo a mis amigos y nos quedamos por ahí jugando hasta las ocho de la noche. Acá la comida es muy diferente porque no se ve la guayaba. La guayaba es una fruta cultivada en Colombia, por dentro es rosada, con unas pepitas, es dulcecita, muy rica."

Juan David.

"Suedia hegoaldean, udaberria eta udazkena hemengo antzekoak dira argitasun aldetik. Udan hemen baino bi ordu beranduago iluntzen du eta neguan, berriz, bi ordu lehenago. Egunsentiaren denbora berdintsua da. Neguan, hemen arratsaldeko 18:00etan iluna bada, han 16:00etarako beltz-beltza egoten da, ez da ezer ikusten! Horregatik, ikastetxeak 14:30ak arte izaten dira, ikasleak ilundu baino lehen etxeratu ahal izateko. Gurasoek lana egin behar badute, zaintza zerbitzua dago: "Fritids" deitzen zaio suedieraz."

Uma.



06. HATZAK BETE LAN



LH6

ESKULTURA

Plastika arloko lehenengo unitatean eskultura gaia lantzen ibili ginen. Historian paseo bat eman genuen, lehenengo eskultoretatik hasi (trikuharriak, mairu-baratzeak edo harrespilak, antzinako hilarriak...) gaur egungo eskultura abstraktuetara bitarte. Beraien sinbolismoa eta esanahia argitzen saiatu ginen eta euskal eskultore esanguratsuenak ezagutu genituen.

Binaka, Euskal Herriko eskultura bat aukeratu eta sakonago ikertu ondoren, berari buruzko poster bana eginez bukatu genuen gaia. Bitarte horretan, Chillida



Bideoa:
<https://youtu.be/7D0wXgEdzE4>

DBH1

URTE BERRIA, HIZKUNTZA BERRIA

DBH1. mailan sartu diren ikasleentzat urte berezia da. Urrats bat gehiago egin dute ikasketa prozesuan eta oso barneratua dute horretan ari direla. Ikas ohitura berriak, ardura berriak, irakasle berria... baita hizkuntza berria ere!

Gaztelaniarekin hizkuntza-ahizpa izan arren, "oso desberdina" egiten zaien horri distantziarekin erantzuten badiote ere hasieran, irribarretsu ahoskatuko dituzte, berehala, frantseseko oinarritzko esaldiak: **Comment est-ce qu'on dit... arabela?**

Ikastolen Elkarteak landutako EKI materiala ardatz eta mintzapraktika helburu, oraindik urte batzuetako bidea dute egiteko, beti ere horrela hautatzen badute; eta bide horretan, geografikoki hurbileko eta Euskal Herrian hitz egiten den hirugarren hizkuntzaren soinuak eta izanak antzemango dituzte uste baino lehenago. **Je vous avais dit que ce n'était pas si difficile que ça...**

Baina, zer diote aurtengo DBH1. mailako ikasleek? Hortxe aurkitu ditugu frantseseko eskulangintzan....

TUTORETZA SAIOAK

DBH1era sartzea pauso handia izan da denontzat, iazko ikasturteko aldaketa ugari baitaude; hala nola: ikasgai berriak, irakasle berriak, gela berria edota lan gehiago.

Baina irakasleei esker, aldaketetara ohitzen ari gara poliki-poliki. Horretarako, Tutoretza nahiz Proiektu Komunitarioan, hainbat saio eskaintzen dizkiogu besteak ezagutzeari eta tutorearekin ekintzak egiteari. Ikusten den bezala, proiektu ugari egiten ditugu, adibidez: gure sentimenduak agertzen diren eskuak, gure urtebetetzeak agertzen diren kartulinak....



06. HATZAK BETE LAN




DBH2

MATERIA LANTZEN

Eguneroko bizitzan, etxean, kalean, mendian, ikastolan... objektu edo elementu ugari erabiltzen eta manipulatu ditugu. Zer dira objektu eta elementu horiek? Nola aztertzen dira? Zer propietate eta ezaugarri dituzte?

Galdera horiek erantzuteko DBH2. mailako ikasleak **Materia** gaia lantzen aritu gara Natur Zientzia arloan. Masa, bolumena, nahasteak... asko izan dira landu eta ikasi ditugun kontzeptuak.



Ikasgelan lantzeaz gain, **laborategian** ere izan gara, metodo zientifikoa erabiliz ikerketa ezberdinak egiten: tenperaturak materiaren agregazio-egoeretan duen eragina aztertu dugu, dentsitatearekin jolasean aritu gara, eta hainbat nahaste sortu ditugu. Azkenik, sortutako nahaste horiek zein banaketa teknika erabiliz bereizi daitezkeen ikasi dugu.

Ikasleek DBH etapan zehar badituzte tarteak laborategian ikerketa ezberdinak egiteko, horien berri laster izango duzue!



DBH3

KULTURA KLASIKOA

Aurtengo ikasturteko berrikuntzen artean, nabarmendu behar dugu DBH3. mailako Kultura Klasikoa irakasgaia. Izan ere, aipatutako arloa DBH4. mailan soilik irakasten zen eta orain, aldiz, 2. ziklo osoan zehar kurtsatu daiteke.

Fase berri honi hasiera emateko, arloarekin erlazionatutako gai zerronda batetik bi gai aukeratu behar izan ditugu. Ondoren, gai bakoitzaren gaineko informazioa bildu, eta ikasitakoa gainerako ikaskideen aurrean aurkeztu dugu.

Hona hemen egindako hainbat aurkezpenen diapositiba batzuk.



Zer da?

Egitura:

- Epika estiloko epopeia.
- 10.000 bertso 24 kantutan banatuta.

Hiru zati nagusi:

- Telemakoren ikerketa eta bidaiak.
- Ulisesen nabigazioak.
- Ulisesen mendekua, bere emaztearekin ezkondu nahi zutenak erailez.

Zer gertatzen da?

- Ulisesek (Odiseo heroia) Troiako gerratik itzulian izan zuen bidai gorabeheratsua
- Hainbat abentura, pizti, munstro eta arriskuetatik igarotzera behartu zuten Poseidonek eta Venusek.
- Heroiaren bidaiak 10 urte iraun zituen.
- Telemako itsasoetan zehar Ulisesen bila ibili zen.
- Penelope emazteak irian bizirautean du, bertako ezkongalei uko eginez.

Nondik dator?

- Odisea, Iliadarekin batera, epika grekoaren lehen testuetako bat da.
- Homerok K.a. VIII. mendean sortu zuela uste da, Greziak kostaldean zituen kokalekuetan, Asia mendebaldean, egungo Turkia Asiatikoan.



DBH3 BATZAR NAGUSIAN

2024ko abenduaren 11n DBH3. mailako hainbat ikaslek parte hartu zuten Haurtzaro Ikastolako Batzar Nagusian. Lehenengo ebaluazioan Matematika eta Euskara arloetan landutakoak bizitzako egoera erreal bilakatu zituzten. Ez zen nolanhiko erronka izan, hain eremu formalean landutakoaren erakusketa egitea eta hain bikain defendatzea.

Zorionak egindako lanagatik eta eskerrak Haurtzaro Ikastolako Kontseilu Errektorearen izenean!



DBH4 EKImaker

ZER DA EKImaker?


EKImaker, LH3. eta DBH4. mailako Teknologia arloko ikasleen artean, lankidetzan, gauzatzen den proiektua da. DBH4. mailako ikasleek, DBHko aurreko ikasturteetan pilatutako jakintzaz baliatuz, LH3. mailako ikasleek proposatutako ideiak ahalik eta egokien gauzatzea du helburu.

Emandako pausoak:

/ 1.

Irailaren 24an, DBH4. mailako ikasleak LH3. mailako ikasleengana joan ziren ideia eske. LH3. mailako ikasleek baldintza batzuen barruan, beraien ideiak marraztu eta azaldu zizkieten.

LH3. mailako ideiak



DBH4
EKImaker



/ 2.

LH3. mailako ikasleen ideiak jaso ondoren, DBH4. mailako ikasleek, proposatutako ideiak sailkatu eta baloratu egin zituzten. Teknologiaren alderditik bete beharreko irizpide batzuk ezarri zituzten, eta talde bakoitzak, gauzatuko zuen ideia aukeratu zuen.



/ 3.

Azaroaren 12an, LH3. mailako ikasleak Teknologia gelara hurbildu ziren, DBH4. mailako ikasleak egiten ari ziren lanaren jarraipena egitera. Bertan, aukeratuak izan ziren ideiak aurkeztu eta egiten ari ziren lanaren azalpenak eman zizkieten DBH4. mailako ikasleek.



**DBH4
EKImaker**

4.

Abenduaren 10ean, behin proiektuak amaituta zeudela, DBH4. mailako ikasleek, erakusketa bat antolatu zuten, LH3. mailako ikasleei gauzatutako proiektuak aurkezteko. Honela, LH3. mailako ikasleek gauzatutako proiektuak martxan ikusteko eta erabiltzeko aukera izan zuten.



Aukeratuak izan ziren ideiak



PROIEKTUA	LH3 - IDEIAREN BOZETOA	DBH4 - GAUZATUTAKOA
<p>BESO-MOTXILA</p> <p>Motxila moduan jantzi ditzakegun bi beso gehigarri dira. Gure besoak luzatu beharrik gabe, distantzia batera dauden gauzak hartu ahal izateko.</p>		
<p>BOZGORAILU AUTONOMOA</p> <p>Musika entzuteko balio duen gurpildun bozgorailu bat da. Bakarrik mugitzen da eta oztopoak saihesteko gaitasuna dauka.</p>		
<p>HEGAZKIN SOINULARIA</p> <p>Soinuak egiten dituen hegazkin ibiltari bat da. Bere kabuz mugitzen da eta oztopoak saihesteko gaitasuna dauka.</p>		
<p>KATAPULTA GELDIEZINA</p> <p>Katapultak hau aurrerantz mugitzen da, lurrean marraztutako lerro beltz bat jarraituz. Oztopo bat topatzen duenean, harri bat jaurtitzen du oztopoa suntsitzeko eta aurrera jarraitzeko.</p>		
<p>NORIA GOXOA</p> <p>Noria honetan goxokiak eta gailetak biraka dabilta, txalo egitean, gelditu egiten da eta goxokia edo gaileta har dezakegu. Ondoren, biraka jarraitzen du.</p>		



SAN NIKOLAS



SAN TOMAS

GABON KANTARI



TALDEA

TALDE BERDEA, GERO ETA AKTIBOAGOA

Talde Berdeko kideak ekintza gehiago egiten ari dira aurten, 2024-25 ikasturtean.

Landuko duten gai nagusia **Ura** bada ere, horrez gain, oso keinu konkretuak bultzatzen dituzte lan egiten ari dira, **hilabetero keinu txiki eta erraz batekin.**

URRIKO KEINUA

Urriaren **mugikortasuna** hartu zuten ardatz. **Zein zen keinua? Oinez, patinetez edo bizikletaz** ibiltzea. Auto pribatua gutxiago erabiltzea eta, ahal izanez gero, partekatzea.

Zergatik mugikortasuna? Hemen datu esanguratsu batzuk:

Berotegi Efektuko Gasak dira klima-aldaketaren erantzule nagusiak. Gaur egun bizitzeko dugun moduaren eta eguneroko praktika eta ohituren ondorioz, gero eta CO₂ tona gehiago isurtzen ditugu atmosferara. 85.676 tona CO₂ igorri zituen Oiartzunek 2019an, 2010ean baino 3.000 gehiago. Joera hau mantenduko bagenu, 2030ean 90.000 CO₂ tonatik gora isuriko lirarteke herrian.

Azken 40 urteetan 1,2°C igo da Oiartzungo batez besteko tenperatura eta prezipitazio kopuruak behera egin du. Bizi eta kontsumo ohiturak mantendu eta neurririk hartuko ez bagenu, mende amaierarako 4,5°C igoko litzateke tenperatura. Bero boladak, lehortek eta gau tropikala ere ugari egingo lirarteke.

Autoek eta beste garraiobide kutsakorrek sortzen dute CO₂ gehien. Garraiobide kutsakorrek eta bereziki autoak erabiltzeagatik 53.000 tona CO₂ isurtzen ditugu urtean Oiartzunen, kopuru osoaren %61. Pertsonako gutxi gorabehera:

- Ibilgailu partikularretan, 208 g CO₂e/km.
- Hiri-busean, 135 g CO₂e/km.
- Oinez, patinetez edo bizikletaz, 0 g CO₂e/km.

Aurkezpenak

Urriaren 7an, Talde Berdeko kideak, aurten 35 bat dira, geletara joan ziren ekimenaren berri ematera eta parte hartzeko eskatuz. DBHko ordezkariak euren geletan egin zituzten aurkezpenak. LH4, 5 eta 6. mailakoek, berriz, euren mailetan, eta LHko beste mailetan eta HHn. Baita idazkaritzan ere.

Guraso Ordezkariegana ere joan ziren urriaren 21ean, euren urriko zein ikasturteko keinuaren berri ematera. Eta hurrengo urratsen berri. Oiartzun Irratian ere izan ziren, herritarrek informatzen.

AZAROKO KEINUA

Zero zabor zen oinarria. Zaborra murriztea eta zaborra ondo kudeatzea. Keinua, berriz, ahal den zabor gutxiago sortzeko ikastolara hamaiketako edo merienda ekartzeko ongi berrerabilgarriak erabiltzea. Eta zaborra sortzen dugunean, ongi sailkatzea.

Argi dago zabor asko sortzen dugula gure egunerokoa, eta plastikoaren kudeaketa arazo larria bihurtzen ari dela. Zenbakiak beldurgarriak dira: Oiartzunen urtean pertsonako 40,6 kilo plastiko hondakin sortzen dira gutxi gorabehera. Gainera, zenbait plastikozko material oso denbora gutxian erabiltzen dira. Adibidez, plastikozko poltsak 12 minutuz erabiltzen dira, batez beste, baina desagiteko 10-1.000 urte bitartean behar dira.

ABENDUKO KEINUA

Ardatza: **kontsumo arduratsua. Bota baino lehen konpondu, eta berrerabili.**

Gabonak gertu zeuden eta, erosketa garaia izaten denez, zerbait berria erosi aurretik edo daukaguna bota aurretik, konpontzea eta berrerabiltzea eskatu ziguten.

Gabonak urtean erosketa gehien egiten den garaia da. Opariak, janaria... neurririk gabe kontsumitzen dugu. Baina garrantzitsua da, garai hauetan ere, kontsumo arduratsua egitea eta gauza bota aurretik konpontzea eta berrerabiltzea.

Gogoratu: xumea irudituagatik, ekintza bakar bat ere ez da alferrikakoa. Jarrai dezagun denok gure ekarpen txikiak egiten!



Zergatik berrerabili?

Objektuak berriro erabiliz, haien balio-bizitza luzatzen dugulako; eta, horrela, hondakin kopurua, hondakin horien kudeaketak eragiten dituen inpaktuak eta baliabideen kontsumoa murrizten direlako.

Txinpart! aldizkariaren zenbaki hau abenduan itxi genuen. Hauek dira hurrengo hilabeteetako gaiak eta keinuak:

- **Urtarrila:** Energia: Tenperatura. Zentzuz erabili berogailua. Argiak itzali, gela hutsik badago.
- **Otsaila:** Papera. Esku-oiak. Orrien atzeko alde ere erabili daitezke. Paper gutxiago erabiltzen badugu, arbola gutxiago bota beharko ditugu. Fakturak amiez. **Zuhaitz landaketarekin** batera.
- **Martxoa:** Botilako ura neurri edan. Iturriko ura, lehenetsi. Aste Ekosoziala.
- **Apirila:** Tokian tokiko eta garaian garaiko produktuak kontsumitu. KM0.
- **Maiatza:** Mugikortasuna. Berrituz?
- **Ekaina:** Keinuen errepasoa.





ESKUTTUN

Kaixo, hemen gaude berriz ere Eskuttuneko kideak. Aurten ere ikasturtea ilusioz hartu dugu, ekintza ugari martxan jartzeko, esaterako: Euskararen Eguna, ikastolako lhoteetako emanaldia, kirol txapelketak... Beti ere, euskaraz eta euskararen alde!

Ikasturte berri honetan, DBH1eko lagun mordoa sartu da Eskuttun taldean! Eta beraz, DBHko maila bakoitzean baditugu ordezkariak astero-astero bildu eta elkarlanean aritzeko. Orain, guztira, 62 ikaslek osatutako taldea dugu. Horrez gain, ikastolako ikasle ohiak diren Eneko San Jose eta Udane Guridi etortzen dira laguntzera.

Gustura elkartzen gara ostiralero, lana eta gozamena tartekatu eta urterokoari jarraipena ematera.

Muxu handi bat,
Eskuttuneko kideak.

LABURRAK

XXXVII. Xabier Lete

Prosa eta Poesia Lehiaketako saridunak



PROSA

MAILA

LH3

1. SAILA			
SARIA	Koaderno magikoa	Aiur	Ekhi Manterola Salaberria
SARIA	Maddiren abentura	Kattin	Mikele Garai Mendiburu
AIPAMEN BEREZIA	Izar eta bere pultserak	Lai	Laida Lertxundi Herce

LH4

2. SAILA			
SARIA	Opor tristeak	Tximeleta	Izai Nazabal Olasagasti

LH5

3. SAILA			
SARIA	Esnea!	Pizza	Uma Irastorza Mui
SARIA	Nerea eta liburu galdua	Negu zuria	Elaia Lasa Gelbentzu

DBH1-2

4. SAILA			
AIPAMEN BEREZIA	Dena ez da txarra	Borragoma	Udane Bereau Cortajarena

DBH3-4

5. SAILA			
SARIA	Zauriak ez dira itxi	Hotza	Kattalin Arabolaza Palomo
SARIA	Orain zer?	Oihu	Lorea Arruabarrena Destribats
AIPAMEN BEREZIA	"Pi-pi-pi"	Mari Kalanbre	Ihintza Zabaleta Ibarra

16-18

6. SAILA			
SARIA	Sentitzen dut	Barkatu	Ilargi Ziaurritz Olaziregi

POESIA

MAILA

DBH1-2

4. SAILA			
SARIA	Amildegia	Begi beltz	Aitor Agirre Gonzalez
SARIA	Galduta	Oligma	Olivia Igea Martin

DBH3-4

5. SAILA			
SARIA	Etxerako bidea	Familia	Maddi Garmendia Irastorza
SARIA	Ni	Xuxumeku	Marti Casanova Manera
AIPAMEN BEREZIA	Neguren hasiera	Luma	Iraia Gaztelumendi Olaskoaga

16-18

6. SAILA			
SARIA	Nora joan	Orbainak	Malen Etxebeste Lekuona
SARIA	Zilarrezko argia. Zu.	Zilarzale	Auritz Jauregi Irastorza





OIARTZO IKASTOLAREN EGUBERRIKO TOPAKETA



Iazko ikasturtean batxilergoa bukatu zuten 117 ikasleei, ekitaldi xumea

Oiartzo batxilergo ikastolaren 2024ko Eguberriko Topaketa egin zen abenduaren 23an, astelehen arratsaldean, Orereta-Errenteriako Niessen Kulturgunean. Oiartzo Oiartzungo Haurtzaro eta Orereta-Errenteriako Orereta Ikastolen batxilergo ikastola izanik, bi herrietan txandaka egiten da Eguberriko Topaketa; ikasturte honetan Orereta-Errenterian tokatu zen. Ikasleak, haien familiak, irakasleak, Orereta eta Haurtzaro Ikastoletako ordezkariak, eta udalekoak izan ziren bertan.

Ikasleak beraiek aritu ziren ekitaldiaren aurkezle eta gidari lanetan. Oiartzo Ikastolako zuzendari eta lehendakariari eman zieten hitza lehenik. Olatz Mitxelena (zuzendaria) eta Maider Gezalak (lehendakaria) iaz ikasketak bukatu zituzten ikasleei zorionak eta eskerrak eman, etorriko direnei ongietorria egin, irakasle eta langile taldea eskertu eta Ikastolaren etorkizuneko erronkak aipatu zituzten. Aipamen bereziak izan ziren Txema Marin irakasle eta Maider Gezala lehendakariarentzat; lehenak iazko ikasturtearen amaieran hartu baitzuen erretiroa eta bigarrenak, 2024a amaitzearekin batera, utzi baitzuen Oiartzoko lehendakaritza.

Ohiturari jarraiki, ikasleen ikuskizunak eta hitzartzeak ere izan ziren ekitaldian. Ikasleek "beren" irakasleei egindako sari-banaketa izan zen aurtengo beritasun nabarmena. Diploma akademikoen banaketa, taldeko argazki, auresku eta elkarrekin berrikerian aritzeko osteko mokaduekin amaitu zen Oiartzo Ikastolaren 2024ko Eguberriko Topaketa.

ESKOLAZ KANPOKOAK

BERTSO ESKOLA eta DANTZA MODERNOKO TALDEA

Musika, dantza, antzerkia, kirola, eskulanak, jolasak... aisialdian hainbat eta hainbat jarduera ditugu aukeran. GURE ikastolako aisialdi eskaintza zabala da.



Bertso Eskola

Azken urtetan indarra hartu duen Bertso Eskola dugu Haurtzaro Ikastolan. Aurten 3 talde ditugu, eta ikastolako ekitaldietan ez ezik, herrian antolatzen diren ospakizunetan eta jaietan ere parte hartzen dute.

Bertso Eskolak ematen lan talde bikaina dugu; Ander, Kattalin, Egiar eta Peru.



Dantza Modernoa

Ikasle talde ederra dugu bertan eta monitore lanetan Ixiar eta Eneritz aritzen dira.

LH1. mailan hasi eta DBH4ra bitarteko ikasleak aritzen dira dantzan, astero-astero. Ikasturtean zehar, ikastolan bertan eta herrian antolatutako jaietan eta emanaldietan giro ona, alaitasuna eta kolorea jartzen dute beti.

Euskaraz

Aisialdian ere EUSKARAZ gozatzen dugu!


Ondo pasatzen dugu ikastolako aisialdi eskaintza zabalarekin eta...

EUSKARAZ ABESTU
EUSKARAZ DANTZATU
EUSKARAZ ANTZEZTU
EUSKARAZ JOLASTU
EUSKARA SORTU
EUSKARAZ EGITEN DUGU KIROLA
EUSKARAZ GOZATZEN DUGU AISIALDIAN
ETA BIDE HORRETAN JARRAITUKO DUGU
AURRERANTZEAN ERE!



OIARTZO

ELEANIZTASUNA, PAPERETIK AHORA ETA IKASGELATIK MUNDURA



Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik, hala zioen Joxan Artzek.

Eta hizkuntza bat ez da ikasten erabiltzen ez bada, hitz egiten ez bada, liburuetatik, gramatikatik eta sintaxitik ahora pasatzen ez bada, hala diogu guk.

Oiartzo Ikastolan proiektu berria jarri dute martxan ahozko komunikazioa lantzeko, atzerriko hizkuntzan; zehazki, ingelesez eta frantsesez ahozotasuna lantzeko: eTwinning, Europar Batasunaren Erasmus+ programak barne hartzen duen ekimenetako bat. Izenak (ingelesez) dioen bezala, bikote digitalak egitea da ekimenaren asmoa, online eta atzerriko hizkuntzan gai eta ekintza jakinak lantzeko eta egiteko. Hango eta hemengo gazteen talde txikiak sortzea, alegia.

eTwinning ekimeneko bi proiektuekin ekin diote bideari Oiartzo Ikastolan: ingelesa landuko dute batekin eta frantsesa, berriz, bestearekin.

Polonia - Kongo - Euskal Herria, gai sozialak hizketagai ingelesez

Aurten, hautazko irakasgai berria du Oiartzok batxilergoko lehen mailan: ahozko komunikazioa atzerriko hizkuntzan. Proiektu bidez landuko den irakasgaia da, konpetentziala oso (ahozotasuna lantzea da helburu behinena, dena delakoa ere edukia). 23 ikaslek aukeratu dute irakasgaia eta haiek dira eTwinning proiektuetako batean

buru-belarri dabilzanak. Kongoko lizeo frantses nazioarteko bateko eta Poloniako batxilergo ikastetxe bateko beste hainbeste ikaslerekin gai sozialen gaineko hainbat online eztabaida egingo dituzte ingelesez ikasturtean zehar. Urrian eTwinning proiektua bera, eztabaidakide izango dituztenak eta beste ikastetxeak ezagutu, norberak bere burua aurkeztu, eta debateetarako gaien ideia-zaparrada eginda, hasiak dira bideo-trukean eta ikasturtean zeharreko aurrez aurreko hizketaldietarako lehen hitzorduak ere jarrita daude.

Reunion uhartea - Euskal Herria, ikastetxeak hobetzeko proposamenak frantsesez

Hautazko irakasgai moduan frantsesa egiten duten Oiartzoko lehenengo zein bigarren mailako ikasleek material digitala (bideoak, aurkezpenak...) sortu eta Reunion uharteko ikasle talde batekin partekatuko dute. Haien, reuniondarren, ohiko hizkuntza frantsesa denez (ez badu ere zertan ama hizkuntza izan), gaztelaniaz sortuko dute oiartzoarrei helaraziko dieten materiala. Denek landuko dute atzerriko hizkuntza: batzuek gaztelania eta beste batzuek, berriz, frantsesa. Ikastetxeak hobetzeko proiektuak landu eta elkarri horren berri emango diete. Reuniondarren lehena beren ikastetxeko patio ekologikoaren aurkezpena izango da. Gurena, hortik abiatuta, Oiartzoko patio amestua irudikatzea.

Hizkuntzak ikasteko bezala, honek guztiak ere bere denbora, ahalegina, amorrazioak eta pozak beharko ditu. Guztiaren gainetik, egin dezala bidea; eta ahal dela, luzea.

ikastola

biharko herria eraikitzen





Matrikulazio epea
Otsailaren 3tik 14ra

Aurkezpen bilera
Urtarrilak 28, asteartea, 17:00etan,
Urmendin hasi eta Haurtzaron jarraitu.

Ate irekiak
Urtarrilak 31 (10:30 eta 15:00), otsailak 1 (11:00)
eta otsailak 5 (10:30 eta 15:00)

Bizitzarako hezkontza

*Ate irekietara etorriko bazarete, aurrez izena ematea beharrezkoa da. Horretarako, webguneko inprimakia bete dezakezue, ondorengo telefono zenbakira deitu 943 491 659 (idazkaritza) edo ondorengo helbide elektronikora mezu bat bidali idazkaritza@haurtzaro.ikastola.eus.